



## INGELESA OINARRIZKO MAILA 2: HELBURUAK ETA EDUKIAK

### HELBURUAK

#### Zeintzuk dira Oinarrizko Mailako 2. urratseko helburuak?

Oinarrizko Mailako 2. urratsaren amaieran ikaslea gai izango da:

- **Ulertzeko** eguneroko bizitzako gaietako buruzko elkarrizketa sinpleak, solaskideen laguntzaz betiere.
- **Identifikatzeko** elkarrizketa baten gaia.
- **Ulertzeko** transakzio errazetako esaldi eta esamoldeak (banketxeetan, geltokietan, dendetan).
- **Ulertzeko** ideia orokorra iragarki edota mezu publiko labur eta sinpleetan (saltoki handietan, aireportuan).
- **Ulertzeko** oinarrizko informazioa telebistako albisteetan, irudien laguntzaz betiere.
  
- **Ulertzeko** eguneroko bizitzako gai eta egoerei buruzko ohar eta mezu sinpleak (SMSak, mezu elektronikoak, postalak).
- **Ulertzeko** gutun pertsonal labur eta sinpleak.
- **Ulertzeko** eguneroko gaietako buruzko gutun formal laburrak (hoteleko erreserbak, atzerriko ikastaro bati buruzko argibideak...).
- **Ulertzeko** eguneroko argibide eta jarraibideak (errezetak, tresna baten funtzionamendua, joko baten arauak, Kaleetako eta dendetako idazkunak)
- **Aurkitzeko eta ulertzeko** informazio espezifikoak liburuxka ilustratuetan eta bestelako material informatiboetan (menuak, zerrendak, ordutegiak, kultura eta kirol jarduerak)
- **Identifikatzeko** informazio esanguratsua egunkarietako testu labur eta errazetan.
- **Ulertzeko** narrazio edo kontakizun labur eta errazak.
  
- **Idatzeko** ohar edota mezu sinpleak, eguneroko jardura eta egoerekin loturiko informazioa, argibideak eta jarraibideak emanez.
- **Idatzeko** gutun pertsonal sinpleak eskerrak emanez, barkamena eskatuz edo norberari buruz edo ingurukoari buruz hitz eginez (familia, bizitza baldintzak, lana, lagunak, zaletasunak...).
- **Idatzeko** gutun formal labur eta sinpleak, informazioa edo zerbitzuren bat eskatuz.
- **Deskribatzeko** esaldi errezen bidez gertakari bat (jai bat, istripu bat...), zer, noiz eta non izan den adieraziz.
- **Koherentzia emateko** testuari, kausa eta denbora ordenamendurako hitz eta egitura garrantzitsuenak erabiliz.
  
- **Deskribatzeko** bere egoera pertsonala modu sinplean (bizitokia, familia, ikasketak, lana, zaletasunak).
- **Deskribatzeko** modu erraz eta egituratuan iraganeko bizipen pertsonalak.
- **Burutzeko** hartueman sozialak (agurtu, barkamena eskatu, norbait gonbidatu).
- **Moldatzeko** eguneroko transakzio eta gestio errazetan (banketxeetan, bidai agentzietan, dendetan).
- **Eman eta jasotzeko** informazio konkretua (esaterako, nola heldu leku batera).

- **Parte hartzeko** eguneroko egoera eta jardueri buruzko elkarrizketetan (lana, aisialdia...) informazio konkretua trukatu, eskaintzak eta iradokizunak eginez.
- **Heltzeko** akordioetara ohiko egoeretan (hitzordu pertsonaletan e.b.) eta formalagoetan (mediku kontsulteta e.b.).

## EDUKIAK

### Zein funtzio linguistiko ikasi behar dira?

Helburu hauek lortzeko hurrengo funtzio linguistikoak burutzen ikasiko du ikasleak:

#### 1. Informazio orokorra eman eta eskatu.

- Deskribapen sinpleak egin pertsona, gogo-aldarte edota gorputz itxurenak
- Deskribatu pertsonak, gauzak (jantziak, altzariak, eraikinak eta eraikinetako gelak), egoerak eta ekintzak.
- Hitz egin klimari buruz.
- Kontatu iraganeko ekintza edo gertakari bat, eta hari buruz galdetu.
- Nork bere burua zuzendu eta zalantza egin.
- Azalpenetan, gauzak banan-banan aipatu.
- Laburpenak egin (filmak, liburuak...).
- Oraina eta iragana alderatu.
- Definizioak eman.
- Aurreikuspenak eta iragarpenak egin.
- Planei eta proiektuei buruz aritu.
- Helburuak finkatu (asmoak eta promesak).
- Hipotesiak formulatu gertakari, pertsona, gauza edo ekintzei buruz.
- Denborazko sekuentzia adierazi.
- Hitza eskatu, eman, kendu eta besteei hitz egiten utzi.

#### 2. Jarrerak eta iritziak adierazi eta baloratu.

- Zalantza adierazi.
- Interesa edo interesik eza adierazi.
- Lehentasunak adierazi.
- Hautua adierazi.
- Axola gabezia adierazi.
- Harridura eta txundidura adierazi.
- Errukia adierazi.
- Nahia adierazi.
- Ohiko gogo-aldarte eta berauen arrazoiei buruzko informazioa eskatu eta eman: asperdura, gogobetetasuna edo nahigabea, mirespena, interesa, estimua, poza, etab.

#### 3. Limurtzea, konbentzitzea.

- Zerbait egiteko baimena eskatu, eman edo ukatu.
- Laguntza eskaini, eskatu, onartu edo errefusatu.
- Zerbait egitera animatu norbait.
- Jarraibideak eskatu eta eskaini (helbideak, norabait nola heldu).
- Lankidetzak eskatu.
- Hitz edo esamolde esanahia edo itzulpena galdetu eta adierazi.
- Zerbait egiteko asmo, gogo edo erabakiaren berri eskatu eta eman.
- Betebehar pertsonalak adierazi.
- Aholkuak eskatu eta eman.
- Debekuak adierazi.
- Jarduerak iradoki eta iradokizunen aurrean erreakzionatu.
- Aitzakiak eta desenkusak adierazi, onartu eta errefusatu, arrazoiak azalduz.
- Oinarrizko telefono-elkarrizketak mantendu (agurtu, komunikazioa abiatu, norbaitez galdetu, solaskideari itzaroteko eskatu, entzuten edo ulertzen den ziurtatu).
- Norbait animatu jarraitzera.

#### 4. Sozializatzea.

- Zorionak eman eta zorion emateari erantzun.
- Esandakoa ulertu dela adierazi edo komunikazioa aurrera doala erakutsi.
- Gonbita onartu edo errefusatu.
- Barkamena eskatu.
- Informazio edo kontakizun baten aurrean, interesa, harridura, ezustekoa, poza, tristura agertzea.
- Mezu bat ulertu dela egiaztatzea.

#### Zein motatako testuak irakurriko dira?

- Gutun pertsonalak.
- Gutun formalak.
- Aginduak eta jarraibideak: errezetak, tresnak erabiltzeko jarraibideak, leku batera joateko argibideak.
- Mezuak.
- Posta elektronikoa.
- Curriculum vitaeak.
- Panelak eta oharrak.
- Ordutegiak eta egutegiak.
- Informazio idazkunak, erregulazioak.
- Menuak eta kartak.
- Planoak eta kale izendegiak.
- Formularioak eta galdeketak.
- Propaganda eta publizitate esku-paperak.
- Aldizkari eta egunkarietako artikulua errazak.
- Komikiak, tebeoak eta biñetak.
- Horoskopoak.
- Turismo, bidaia eta aisialdirako gidak.
- Publizitate testuak.
- Web orrialdeak.
- Oraingo eta iraganeko gertakariei buruzko narrazio eta deskribapenak.
- Egokituriko eleberrak.

#### Zein motatako testuak entzungo dira?

- Lagunarteko elkarrizketak, lagunekin, senitartekoekin, lankideekin..
- Elkarrizketak banketxeetan, dendetan, agentzietan...
- Telefono elkarrizketak
- Erantzungailu automatikoaren mezuak
- Lan elkarrizketak
- Telebista eta irratiko informazioa
- Iragarki publikoak, publizitate iragarkiak...
- Albiste laburrak.
- Eguraldi iragarpenak.

#### Zein motatako testuak idatziko dira?

- Gutun pertsonalak.
- Gutun formalak.
- Mezuak.
- Posta elektronikoa.
- Curriculum vitaeak.
- Panelak eta oharrak.
- Informazio idazkunak, erregulazioak.
- Formularioak eta galdeketak.
- Oraingo eta iraganeko gertakariei buruzko narrazio eta deskribapenak

## Zer lantzen da testuan?

Testuak (idatziak zein ahozkoak) ulertzeko eta ekoizteko xedez, testuaren ezaugarriak ezagutu eta kontuan hartu beharko dira:

### Egokitzapena.

- Komunikazio asmoa.
- Testuingurua eta egoera.
- Hizkuntza erregistroa eta maila.

### Koherentzia.

- Edukiaren egituraketa.
- Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak.
- Lexiko hautaketa eta hizkuntza funtzioak.

### Kohesioa.

- Prosodia eta ortografia elementuak (intonazioa eta puntuazioa).
- Anafora elementuak (izenordainak, izenen elipsia, sinonimia, semantika multzoak...).
- Testu antolatzaile eta lokailuak:
  - Espazio antolatzaileak
  - Denbora antolatzaileak
  - Esaldi koordinatu eta menpekoen arteko lokailuak.
  - Esaldi eta parrafoen arteko lotura eta logika antolatzaileak.
  - Ahozko diskurtsoa bideratzeko edo mantentzeko lokailu eta antolatzaileak.

## Zein gairi buruz arituko gara?

- Identifikazio pertsonala.
- Etxebizitza, etxea, hiria eta ingurua.
- Eguneroko bizitzako jarduerak.
- Aisialdia
- Bidaiak.
- Giza harremanak eta harreman sozialak.
- Osasuna eta zainketa fisikoak.
- Hezkuntza.
- Erosketak eta merkataritza jarduerak.
- Elikadura.
- Ondasunak eta zerbitzuak.
- Hizkuntza eta komunikazioa.
- Klima, baldintza atmosferikoak eta ingurumena.
- Zientzia eta teknologia.

## Zein hiztegi ikasiko da?

### Identifikazio pertsonala.

- Pertsonen izaera, trebetasunak eta deskribapen fisikoari loturiko oinarrizko lexikoa.
- Janzkera eta osagarriari loturiko lexikoa.

### Etxebizitza, etxea, hiria eta ingurua.

- Etxebizitza: motak, kokapena, atalak eta banaketa.
- Altzariak, aparailuak eta tresnak.
- Hiria: kokapena, kaleak, eraikinak, berdeguneak eta monumentuak.
- Ikasiko den hizkuntzaren herriaren lurralde banaketa.

**Aisialdia.**

- Jardueri loturiko lexikoa: kirolak, kultur jarduerak...
- Aisialdi guneak: antzokiak, museoak, hondartza...

**Bidaia.**

- Turismoari eta emigrazioari loturiko lexikoa.
- Bidaia motak: lanekoak, aisialdikoak, ikasketa bidaia.

**Giza harremanak eta harreman pertsonalak.**

- Adiskidetasun, sentimendu eta maitasunari loturiko lexikoa.
- Lan munduari loturiko lexikoa.

**Osasuna eta zainketa fisikoak.**

- Gaixotasunak eta sintomak.
- Osasun munduari loturiko lexikoa.

**Hezkuntza.**

- Hezkuntzari loturiko lexikoa: ikastetxeak, ikasgaiak, kalifikazioak, ziurtagiriak...

**Erosketak eta merkataritza jarduerak.**

- Prezioak, txanponak, ordainketa moduak...

**Elikadura.**

- Elikagai eta ontzi motei loturiko lexikoa.
- Janariarekin zerikusia duten tresnen izenak.
- Kantitateak, pisuak eta neurriak.

**Ondasunak eta zerbitzuak.**

- Zerbitzu publiko eta pribatuak: udaletxea, postetxea, ...

**Hizkuntza eta komunikazioa**

- Munduko hizkuntza ezberdinak.

**Klima, baldintza atmosferikoak eta ingurumena.**

- Fenomeno atmosferiko eta klimatikoak.
- Elementu geografikoak

**Zientzia eta teknologia**

- Telefonoarekin erlazionatutako lexikoa.
- Ordenagailua, Internet eta beste komunikabide batzuekin lotutako lexikoa

**Ingelesez mintzatzen diren lurraldeetako kulturaz zer ikasiko da?****Identifikazio pertsonala.**

- Izen eta abizen ohikoenak.
- Abizenen kopurua eta hurrenkera.
- Ongietorria emateko eta agurtzeko keinuak

**Etxebizitza, etxea, hiria eta ingurua.**

- Etxebizitza mota ohikoenak.
- Oinarrizko ezaugarri geografikoa.

**Eguneroko jarduerak**

- Lan baldintzak eta lan bilaketa.
- Puntualitatea.
- Gizartearen ezaugarriak.

#### **Aisialdia.**

- Aisialdiko jarduera ohikoenak.
- Erreferente artistiko eta kulturalak.
- Ospakizunik esanguratsuenak

#### **Bidaia.**

- Gizarte ohiturak, gidatzeko araudiak, e.a.
- Turismorako eremurik ohikoenak..

#### **Giza harremanak eta harreman sozialak**

- Familia bizitzako usadio eta ohiturak.
- Familia egitura.

#### **Hezkuntza.**

- Hezkuntza sistema.

#### **Erosketak eta merkataritza jarduerak.**

- Kontsumo ohiturak.

#### **Elikadura**

- Elikadura ohiturak eta gastronomia.
- Ospakizun jakin batzuetako janari tipikoak.

#### **Ondasunak eta zerbitzuak**

- Ordutegi ezberdinak, dendetakoak, bankuetakoak, e.a

#### **Zientzia eta teknologia**

- Komunikazio, informazio eta teknologia berrien presentzia.

## **Zein egitura gramatikal ikasiko dira?**

Fonologia, ortografia eta gramatika-gaitasun linguistikoak bitarteko bat dira komunikatzen laguntzeko, guztiak biltzen dituen **komunikazio-gaitasuna** lortzeko. Gaitasun hauek, berauek parte hartzen duten atazak burutuz geureganatzen ditugu.

#### **Fonetika eta fonologia-gaitasuna**

- Fonema bokalikoak.
- Fonema. Kontsonantikoak
- Bokale luzeak eta laburrak.
- Forma bortitz eta ahulen arteko ezberdintasuna: *was/were, can, have, to*.
- Erritmoa eta intonazioaren oinarritzko ereduak.
- Zailtasun bereziko fonema edo talde fonikoen ahoskatzea.

#### **Ortografia gaitasuna**

- Alfabetoa.
- Ohikoenak diren grafia eta fonemen arteko korrespondentzia.
- Letra larrien erabilera (hilak, asteko egunak, herritartasuna, pertsona izenordainak, leku eta pertsonen izen bereziak, e.a.)
- Puntuazio marken erabilera.
- Mailako lexikoarekin lotutako laburpen ohikoenak.
- Lerro amaierako hitzen banaketa: oinarritzko oharrak.
- Ortografia aldaketak plurala eta aditz formen eraketan: oinarritzko oharrak.
- *-ing* amaieradun aditz formak eta eratorritako hitzak.
- Erabilera arrunteko ikur ezberdinak: @, &, \$ y €.
- Apostrofoaren erabilera posesiboan ('s) eta aditz kontrakzioak.
- Nazioarteko Sistema Fonetikoaren ikurrak.

## Gramatika gaitasuna

### Perpauz bakuna:

- Aginte perpauzak: *Let's have a look.*
- Harridurazko perpauzak: *What an idea! How beautiful!*
- Perpauzeko elementuen ordena .

### Perpauz konposatua:

- Baldintzazkoak: errealak (*We'll miss the train if you don't run*) y hipotetikoak (*I wouldn't do it if I were you*) .
- Erlatibozkoak espezifikatibak: *A nurse is a person who works in a hospital.*
- Konparaziozkoak: *more/-er ... than, the most/-est, as ... as.*
- Disjuntiboak: *or.*
- Aurkariak: *although.*
- Eraitza adierazten duten perpauzak: *so ... that.*
- Kasuazkoak: *because.*
- Helburuzkoak: *to.*
- Denborazkoak: *before, after, when, while.*
- Question tags: *You come from Turkey, don't you?*

### Izena:

- Numeroa:
  - *Summation plurals* ohikoak (zati bidun izen zenbakarriak): *glasses, shorts.*
- Generoa:
  - Lexiko ezberdinaren bitartezko bereizketa (*boy / girl, aunt / uncle, ...*).
  - Morfologia bitartezko bereizketa egiten duten izen ohikoenak: (*waiter - waitress, ...*).
  - Genero duala (*artist, guest, doctor, ...*).
  - Genero neutro izenak (*baby, ...*).
- Izen propioak (*George, Ireland*) eta arruntak (man, country).
- Genitibo saxoia eta of preposizioarekin osatutako egiturak:
  - *Mary's car*
  - *In three weeks' time*
  - *The roof of the house*
- Zenbakarriak eta zenbakaitzak.
  - Modu bietara erabil daitezkeen izenak: *some paper / a paper...*

### Adjektiboa:

- Predikaziotu funtzioa: *His car is red.*
- Atribuzio funtzioa: *I love that blue dress.*
- Gradu absolutua: *Edinburgh is a beautiful city.*
- Gradu superlatiboa (*Paris is the most beautiful city in Europe*) eta komparazioa (*Dublin is more beautiful than Edimburgh*)
- Adjektibo bezala funtzionaten duten partizipio ohikoenak: *interesting- interested.*  
*I have always been interested in music.*  
*That is an interesting question.*

### Determinatzailea:

- Artikulua: *a/an (a book/an umbrella), the ( the Nile).*
- Zenbatzaile zehaztuak: Ordinalak (*first, second,...*) eta kardinalak (*one, two, ...*).
- Kuantifikatzaileak:
  - *Many / few: many girls / few boys*
  - *Much / little: much time / little money*
  - *Too much / many, too few / little.*

- Too / enough.

You are too young to drive a car / He is not old enough to travel alone.

- Erakusleak: *this, these, that, those.*
- Posesiboak: *my, your, his,... I like your shoes.*
- Galdetzaileak eta harridurazkoak: *what, which, whose,...*
- Partitiboa adierazten duten esapideak: *a piece of, a slice of...*

#### Izenordia:

- Galdetzaileak : *wh-series.*
- Pertsona izenordainak objektu funtzioan: *me, you, him,... I saw him yesterday.*
- Posesiboak: *mine, yours, his,... A friend of mine lives in Bristol.*
- Zehaztugabeak:
  - the "some" series.
  - the "any" series.
  - the "no" series.
  - a lot, not much, etc.
  - all, both, each, one, several, enough, other, another, neither, either.
- Bihurkariak: *myself, yourself, ... He burnt himself cooking lunch.*
- Elkarkariak: *each other, one another:*  
*They often help each other.*  
*They should try to help one another.*
- Erlatiboak: *the wh-series, that.*

#### Aditza:

- Aditz primarioak: *be, have, do.*
- Aditz modalak: Verbos modales:
  - can/can't
  - could
  - should
  - must
  - may
- Agintera.
- Denbora:
  - Orainaldi sinplea: *He usually wears a jacket.*
  - Orainaldi jarraia: *He is wearing a tracksuit today.*
  - Lehenaldi sinplea: regular (*They visited my parents last week*) e irregular (*I lost my watch last summer*).
  - Lehenaldi jarraia: *What were you doing at 7pm?*
  - Lehenaldi jarraia / lehenaldi sinple: *They were having lunch when she arrived.*
  - Orainaldi burutua : *I have been to Alaska twice.*
  - Orainaldi burutua / lehenaldi sinple: *I have seen that film / I saw it last year.*
  - Geroaldiaren adierazpena:
    - Will / be going to:  
*Robots will do all the housework in the future / I am going to paint my room blue.*
    - Orainaldi jarraia / be going to:  
*I am flying to Moscow tomorrow / They are going to buy a new car this week.*
- -ing forma preposizioaren ondoren: *He is afraid of flying.*
- Aditza + -ing edo infinitiboa: *begin/start to/ing.*
- Used to: *They used to wear shorts when they were young.*
- Pasiboa: orainaldian eta lehenaldian.  
*Coffee is grown in Brazil.*  
*They were born in Tanzania.*
- Ezezko formak.

#### Adberbioa:

- Maiztasun adberbioak: *always, never, hardly ever,...*
- Gradu superlatiboa eta komparazioa: *more/most. He should drive more carefully.*
- Mugimendua adierazten duten esapideak: *away, back, down, left, right, straight,...*
- Mailakatzea adierazten duten esapideak: *enough, too, fairly, quite, rather,...*
- Modua adierazten duten esapideak: *fast, aloud,...*
- *Already, yet, ever, just.*

#### Preposizioa:

- Jabegoa adierazten duten preposizio sinpleak: *from, of.*
- Iraupena adierazten duten preposizioak: *for, since.*
- Denborazko preposizio sinpleak: *in, on, at, ... .*
- Lekuko preposizio sinpleak: *in, on, at, behind, near, ... .*
- Mugimendua adierazten duten preposizio sinpleak: *along, across, in(to), on(to), past, through, ... .*

## Nola ikasten da?

Ikasturte honen helburua, ikasleak hizkuntza **eraginkorki erabiltzea** da. Horrenbestez, **gelako zein autoikaskuntza jarduerak** aintzat hartu behar dute ikasleak **komunikazio egoera errealei** aurre egin beharko diela; hau da, ulermen, ekoizpen, elkarrekintza eta bitartekaritza egoerei.

Ikasleak **hizkuntza erabiltzeko gaitasuna** gara dezan eta modu autonomoan ikas dezan estrategia ezberdinak landu beharko dira.

#### Ulermen estrategiak

- Hipotesiak eratzea, nor bere ezagutzetan oinarrituta eta formatua eta irudiak kontuan hartuta.
- Hotsak bereiztea eta bakoitzari zein grafia dagokion jakitea, edo alderantziz.
- Ahozko hizkuntzaren ezaugarriak jakitea (doinua, erritmoa, etenaldiak, ahots modulazioa); hiztunaren asmoa ulertzen laguntzen dutenak, alegia.
- Ahozko hizkuntzan elementu paralinguistikoei (keinuak, jarrerak...) erreparatzea eta haiek zein diren jakitea.
- Hizkuntzaren berezko eduki eta arau kulturaleri erreparatzea eta haiek zein diren jakitea.
- Hitz ezezagunen esanahia identifikatzea, alderdi hauetan oinarrituta: norberaren ezagutzak, testuaren edo esaldiaren zentzu orokorra, egoera, testuingurua, beste hizkuntza batzuen ezagutza, eta gako gramatikal eta lexikoak.
- Estrategia pertsonalak erabiltzea: gako-hitzak azpimarratzea edo idaztea, hitz zerrendak egitea, lokailu zerrendak egitea, etab.
- Hiztegia erabiltzea, hitz ezezagunen esanahiari buruzko hipotesiak egin ondoren.

#### Adierazpen estrategiak

- Eredueri erreparatuta, hotsak, doinu jarraibideak eta grafia jarraibideak kopiatzea.
- Ahozko eta testu idatziak ekoiztea, ikasitako egitura linguistikoak konbinatuz.
- Estrategia konpentsatzaileak erabiltzea: adibidez, parafraseatzea, nork bere hizkuntzako hitzak erabiltzea, zernahitarako elementuak, sinonimoak, etab.
- Solaskideek emandako seinaleen bidez (okerrik gabe errepikatzea, keinuak...) norbera zuzen ala oker ari den aztertzea eta auto-ebaluatzea, okerrak zuzentzeko eta konfiantza handiagoa hartzeko.

#### Elkarrekintzarako estrategiak

- Maiz erabiltzen diren esaldi estandarizatuak ahoz nahiz idatziz erabiltzea (zorianak eman, agurtu, zortea opa izan...)
- Jaramon egitea eta solaskidearen jokabideari erreparatzea, hark esandakoa hobeto ulertzeko.

- Isilunerik ez egoteko edo komunikazioan okerrik ez egiteko estrategia konpentsatzaileak erabiltzea: laguntza eskatu, errepikatzeko eskatu, zerbait argitzeko eskatu, hitzekoa ez den hizkuntza erabili, gaia aldatu, esamoldeak erabili pentsatzeko astia hartzeko...
- Mezua ulertu dela egiaztatzea; solaskideari zuzentzeko eskatu, izan daitezkeen txarto ulertuak argitu.

#### **Autoikaskuntza estrategiak**

- Baliabide pertsonalak (testu liburua, hiztegi pertsonala, oharrak, etab.) aurkitzea eta eraginkorki erabiltzea, bai eskolan daudenak (liburutegia, baliabideen gela, etab.), bai eskolatik kanpokoak (Internet, prentsa, irratia, satellite bidezko telebista).
- Lexikoa, gramatika, etab. ikasteko oinarritzko estrategiak identifikatzea eta ikasitako hizkuntza azkar eta maiz erabiltzea.
- Errazago edo gehiago ikasteko, estrategia hauek erabiltzea: konpentsatzaileak (parafraseatzea, mimika erabiltzea, etab.), afektiboak (hutsegiteak direla-eta, nor bere buruan konfiantza izatea, lan bat egiten ausartzea), eta sozialak (ikaskideekin lan egitea, jatorrizko hiztunekin trukea egitea, etab.)
- Ikasketa eta lan teknikak garatzeko, estrategia hauek erabiltzea: memorizazio estrategiak (buruko loturak sortzea, mapa semantikoak...), estrategia kognitiboak (aztertzea, ondorioztatzea, arrazoitzea...) eta estrategia metakognitiboak (helburuak finkatzea, ezagutza berriak aurrekoekin lotzea...)
- IKTen bidezko komunikazio egoeretan parte hartzea (eskuko telefonoko mezuak, txatak, mezu elektronikoak...)
- Okerrik ohikoenak hautematea eta zergatik egiten diren aztertzea.
- Okerrak hizkuntza ikasteko prozesuan ezinbestekoak direla onartzea.